

Julian Ajuriagerra hil da

Euskaldunon Egunkaria, 1993-03-30: 2.

Ikustera joaten nintzen noizbehinka. Hain zen gizon apala eta maitagarria. Baina bada hilabete batzuk ikusten ez nuela. Azkenekoan, EGUNKARIAren aldeko firma bat eskatzera joana, hain xuxen: Pasa ginen goizez Beloketik Iratzederrekin egotera, eta honena jaso ondoren eta bertan benediktarrekin gozoki bazkaldu, Bilafrangako "Hegoa" etxetik pasa ginen Ajuriagerra doktoarearena jasotzeko asmoz. Dagoeneko, hainbeste lan sakon egindako buru argi emakor hura itzaltzen hasia zen eta bere familiaren izenean jaso genuen EGUNKARIAren aldeko sinadura. Julian bera Ginebran ezagutu nuen Euskal Herriratu eta laster. 1970ean izango zen, GATTeko itzulpen lan baten inguruan egin nuen bidaia; OMSeko zuzendari zen Jose Maria Bengoa doktorea Venezuelako nire lagunaren etxean pasa nituen egun batzuk, eta larunbat batean esan zidan ea Ajuriagerra psikiatra doktorea, Juanen anaia, ikustera joango ginen. Neuk, baietz, pozik ezagutuko nukeela. Hala heldu ginen "Bel Air" izeneko Psikiatri Klinikara goiz hartan. Ohean aurkitu genuen katarro haundi batekin. Francoren Parkison gaitza berak zaintzen zuela esaten zenez, galdetu egin nion ea egia zen, eta irrifar batekin erantzun zidan diskretuki: "neuk zaindua balego, hobeto egongo litzateke"... Goian bego bere herrian merezi baino ezagutza gutxiagorekin, apal asko, azken urteak pasa dituen Julian Ajuriagerrari.